

**SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN  
ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN SAIOAREN AKTA  
2017ko AZAROAREN 16ko SAIOA**

Santurtziko udaletxearen batzorde aretoan arestian aipatutako eguneko hamaikak eta hogeita hamar minutu direnean, Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ezohiko bilera egin du, Presidente jaunak alde zuzenetik deituta. Bileran hurrengo hauek hartu dute parte:

Kontseiluburua: Danel Bringas Egilior jn.

Bertaratutako bokalak:

Itsazain Ortolatxipi Ibáñez jn., Eusko Abertzaleak Udal Taldea.

Cristina Senarriaga Rojo and., Eusko Abertzaleak Udal Taldea.

Jonatan Sánchez Fernández jn., Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea.

Endika García Saez jn., Bildu Udal Taldea.

Pedro Miguel Lucena Balda jn., Euskal Sozialistak Udal Taldea

Luis Ángel Urdiales Villanueva jn., Popularren Udal Taldea.

Zuzendaria: Carlos Morán Arostegi jn.

Kontu hartzailea: José Miguel Paredes Cisneros jn.

Idazkari eskuordetua: José Fernando García Pañeda jn.

Kontseiluburu jaunak bilerari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

**1. 2017rako ORDAINSARIAREN GEHIKUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Kontseiluburu jaunak hitza hartu du eta 2017. ekitaldirako autonomiadun erakundeko langileen ordainsaria gehitzeko proposamenaren berri eman die kideei. Dokumentazioa alde zuzenetik helarazi zaie kide guztiei.

Beste parte hartzerik egon ez denez, Artezkaritza Kontseiluko buruak akordioaren inguruko bozketari ekin dio eta Artezkaritza Kontseiluak aho batez onartu du 2017. ekitaldirako autonomiadun erakundeko langileen ordainsaria gehitzea.

**2. SERANTES KULTUR ARETOAREN 2018rako AURREKONTUAREN PROIEKTUARI BURUZKO INFORMAZIOA.**

Kontseiluburu jaunak hitza hartu du eta 2018. ekitaldirako autonomiadun erakundearen aurrekontu-proiektuaren alderdi nagusiak azaldu ditu. Dokumentazioa aldeztetik helarazi zaie kide guztiei.

Kideek parte hartu ondoren, Artezkaritza Kontseiluko kideek gaia jaso dutela ulertzen da.

### **3. SERANTES KULTUR ARETOAREN 2018. EKITALDIRAKO AURREKONTUA PROPOSATU ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Artezkaritza Kontseiluko buruak akordioaren inguruko bozketari ekin dio:

Kontseiluburu jaunak eta Eusko Alderdi Jeltzalearen Udal Taldeko ordezkariak aldeko botoa eman dute (hiru boto) eta Sí Se Puede Santurtzi, EH Bildu, Euskal Sozialistak eta Alderdi Popularra Udal Taldeek, berriz, abstentzioa agertu dute (lau boto). Horrela bada, Artezkaritza Kontseiluak erabaki du Kiroletarako Udal Institutua autonomiadun erakundearen 2018. ekitaldirako aurrekontua onartzea.

### **4. SERANTES KULTUR ARETOAREN PLANTILLA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA PROPOSATU, EBATZI ETA UDALEKO KULTURA ETA EUSKARA ARLORA BIDALTZEA.**

Kontseiluburu jaunak hitza hartu du eta autonomiadun erakundeko langileen plantillari eta lanpostuen zerrendari buruzko aurrekontuen agiriari alderdirik azpimarragarrienak nabarmendu ditu, esanez ez dela iazkoarekin alderatuta, inongo aldaketarik egon.

Beste parte hartzerik egon ez denez, kontseiluburu jaunak gai zerrendan adierazitako erabakiaren inguruko bozketa egin du:

Kontseiluburu jaunak eta Eusko Alderdi Jeltzalearen Udal Taldeko ordezkariak aldeko botoa eman dute (hiru boto) eta Sí Se Puede Santurtzi, EH Bildu, Euskal Sozialistak eta Alderdi Popularra Udal Taldeek, berriz, abstentzioa agertu dute (lau boto). Horrela bada, Artezkaritza Kontseiluak erabaki du Kiroletarako Udal Institutua Autonomiadun Erakundearen plantilla eta lanpostuen zerrendarako proiektua onartzea.

Saio honen grabazioa hurrengo esteka honetan dago:

<https://owncloud.santurtzi.eus/index.php/s/5tKRiVVLDR9VKL8>

Jorrazeko gai gehiagorik egon ez denez, Batzordeburu jaunak bilera amaitutzat eman du akta honen hasieran adierazi den egunean hamabiak direnean. Eta nik, organo honen Idazkari Eskuorde naizen honek hau guztiau ziurtatu egiten dut.

OE  
**ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN PRESIDENTEA**